

Xabier Garcia Gaztelu eta Irantzu Gallastegi euskal preso politikoen kontrako epaiketa hasi da

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 25/01/2024

Espainiako Auzitegi Nazionalaren fiskaltzak Manuel Zamarreño PPko zinegotzia exekutatu izana leporatzen die eta 120 urteko espetxe zigorra eskatzen du bakoitzarentzat.

1998ko ekainaren 25ean lehergailu bat jarri zuten motor batean Erretereriako kale batean (Gipuzkoan), eta leherrarazi egin zuten Zamarreño parean igaro zenean. Zamarreñoren bizkartzain lanak egiten zituen ertzaina ere zauritu egin zen leherketa hartan. Fiskaltzak ekintza hauek leporatzen die bi euskal preso politikoei eta 120 urteko espetxe zigorra eskatzen du bakoitzarentzat.

Xabier Garcia Gaztelu 2001an atxilotu zuten, Frantzian, eta 152 urteko espetxe zigorra ezarri zioten hainbat ekintza leporatuta. Irantzu Gallastegi 2005an atxilotu zuten, Frantzian baita ere, eta 50 urteko espetxe zigorra ezarri zioten Miguel Angel Blancoren exekuzioa leporatuta. Epaiaketaren zehar biek uko egin dute deklaratzeari.

<https://eh.lahaine.org/xabier-garcia-gaztelu-eta-irantzu>